

Irakurritako liburu iradokitzaileenatakoa suertatu zitzaidan Bruce Sterling zientzia-fikzio idazlearen (Uhartek Sarean, 1988) "[Shaping Things](#)" saiakera, are gehiago 2005.urtean argitaratu zela kontutan hartuta (The MIT Press edizioak, 2005).

Hereneguneko gauzen sailkatze kronologiko batekin hasten du liburua etzien idazleak: ehiztari-biltzaileen **ARTEFAKTUAK** lehenik, iraultza industrialeko bezeroen **MAKINAK** ondoren eta kate-produkzioko kontsumitzaileen **PRODUKTUAK** ostean, gaur egungo azken erabiltzaileen **GIZMO** eta gauzen (hitz)egileen **SPIMEEKIN** amaiatu arte. Diakronian, gauzen teknokultura hauetako batetik bestera pasatzean ezin-itzuliko mugak nola igarotzen ditugun azaltzen du edota nolakoa den garaiko gauza eta pertsonen arteko erlazioa.

SPIME kontzeptua definitzen du Sterling-ek (Space/Time-etik): gauza bera baino, gauzak metatutako historia (adib., informazioa) bere bizitza erabilgarrian denboran eta espazioan kokatzen duen objektua. Horrela, **SPIMEAK** ez dira produzitzean gauzatzen, baizik eta bere bizitza erabilgarrian erabiltzaile aktibo edo (hitz)egileek ("Wranglers" ingeleraz) sintetizatuko dute beraiekin hartu-emanen. RFID teknologia (orain [NFC teknologiak](#) oinarri hartzen duena) aipatzen du gauzeekin hartu-emanerako eta historia trazatzeko teknologia interesgarri bat bezala, informazio laino eta beste adibide batzurekin batera. Gauzak berak bihurtzen ari dira elkarrizketa interesgarrien aktore aktibo Sterling-en hitzetan, gu bezala denborarekin elkarreragiteko gai. "Izenak aditz" bihurtzen ari direla dio.

Gauzen diseinuaren garrantziaz ere luze idazten du, diseinatzaileen rolaz ideia berrien zabaltzean, ideia hauek aurrera eramateko pisu kognitibo eta aukera kostuez, nola ardo botila bat ez den inoiz gehiago ardo botila soil bat izango... Eta bai, **BIOTEZ** ere mintzo da: bere anatomia edo biologia moldatu dezaketen erabiltzaileez. Gauzak pertsona bihurtzen direnekoa edo pertsonak gauza. Nork eta nor gauza bera, adio ergatiboa!

Guzti hau **UBLOPIA** edo **OTIVIONA** izango den ikusteko dago, hau da, utopia oblibiko bat edo oblibion utopiko bat. Baina, honen inguruko gogoetez jakiteko saiakera irakurri beharko duzue, bukaeraraino. NOR bazarete bederen.

Bruce Sterling:

- Twitterren: [@bruces](#)
- Sarean: [wired.com](#)

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)